ARKO

AURREZ AURRE: JOSE ANGEL AGIRRE

# Arrasate PRESS

2001.eko
martxoak 9
532. zenb.



# Munduko musika gurean




iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

# urteurrenak

## Arrasate Musikal K.O?

■ **56. zenb.**
*(1990-03-16)*

Arrasate Musikal hil edo biziko egoeran zegoen; izan ere, hamaika milioiko aurrekontua ez zen nahikoa. Arazoari aurre egiteko bi irtenbide zeuden: alde batetik, udal kontserbatorio bihurtu Arrasate Musikal, edo bestetik, Arrasate Musikalek entitate autonomo bezala jarraitzea.

## Arrasaten ospitalerik ez

■ **56. zenb.**
*(1990-03-16)*

Osakidetza ez zegoen prest ospitale berria eraikitzeko, baina horren ordez, berritasunak egiteko asmoa erakutsi zuten. Berritasun horiekin, zentroari 200 metro koadro gehitzea, eta era berean, zentroa eta anbulatorioa aireko iragainbide baten bidez komunikatzeko asmoa azaldu zuten.



## Elbarriendako garraio berria

■ **56. zenb.**
*(1990-3-16)*

Inguruetako elbarri gehienek Bergarako Aspacen egiten zuten lan, eta egunero joaten ziren hara. Guztira, hogei elbarri inguruk zituzten arazoak joan-etorrietarako, eta Debagoieneko Mankomunitateak erabaki zuen furgoneta bat euren beharretara egokitzea.



## J.A. Artzeren emanaldia institutoan

■ **56. zenb.**
*(1990-3-16)*

Jose Antonio Artze kulturaren makina bat arlotan aritu izan den usurbildarra dugu. Ez dok hamairu elkartean egin zituen lehen urratsak musikan, eta Arrasateko Institutuan irudi, musika eta doinu bitxiz osatutako emankizun berezia eskaini zuen.

# besteek esana

« Gutxieneko baldintza batzuk behar dira. Giza baliabide egoki eta prestatuak behar dira produktu txukun bat egiteko. Lana gustuko dutenak eta gogotsu daudenak behar dira. Eta, bestetik, baliabide ekonomikoak daude. Giza baliabideen kontuan borondatea nahikoa izaten da, baina baliabide ekonomikoak ez dira nahikoak. Herri telebista guztietan huts egiten du ekonomiak. Arrasate inguruko GOITBren kasua aipatzen da beti, baldintza egokiak baitituzte han. Baina, edozein tokitan ez da hain erraza herri telebista bat sortzea. Elkarte, aldizkari edo irratiren bat badago, errazagoa da. Kontua da diru laguntzak oso eskasak izaten direla.

**Jose Manuel Irigoien**
TTIPI-TTAPA
telebistako zuzendaria
**Euskaldunon Egunkaria**
*(2001eko martxoak 4)*

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Kazetariak**: Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: K. Corbella - ZazpiKa.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz* | *Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz* | *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

# aurkibidea

• Lehen begiratua . . . . . . . . 3
• Asteko hitzorduak . . . . . . . 4
• Inkesta . . . . . . . . . . . . . . 5
• Astearen errepasoa. . . . . . 6
• Orain eta hemen. . . . . . 7/8
• Txutxumutxuak . . . . . . 9/10
• Aurrez aurre **Jose Angel Agirre** . . . 12/13
• Kulturaren txokoa . . . . . . . . 14/15/16
• Kirolak jokoan. . . . . . **18/19**
• Zaldibar areto futbola . . . **20**
• Uhinetan barrena . . . . . . **21**
• Foto zaharra . . . . . . . . . . **22**



# asteko **hitzorduak**

## manifestazioa **Bilbon**

Arrasateko Eusko Alkartasunak autobusa antolatu du lehendakariak deitutako manifestaziora joateko, Bilbora. Garibaiko geltokitik irtengo du autobusak, martxoaren 10ean, 15:30ean. Izena emateko, joan Alkartetxera edo deitu 943 71 27 88 telefonora.

## EHren **ekitaldia**

Martxoaren 10ean, ekitaldia egingo du Euskal Herritarrokek Anoetako belodromoan, Erantzun bakarra dago: burujabetza da bakea lelopean. Donostiara joateko autobusak antolatu dituzte. Garibaitik irtengo dira, 16:00etan. Txartelak salgai daude Irati tabernan.

## imsersoren **bidaiak**

Imsersoko 2001/2002 bidaia programetarako eskariak egiteko epea zabalik dago. Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailean aurkeztu ahal izango dira, martxoaren 31 arte, 15:00etatik 17:00etara.

## ikasle **ohiak**

La Merced ikastetxeko ikasle ohiek irteera egingo dute martxoaren 19an. Argibide gehiagorako edo izena emateko, zoazte Lore lurrindegira.

## 58ko **kintoak**

Martxoaren 31n, 58ko kintoek afaria egingo dute. Hilaren 25a baino lehenago egin behar da izena ematea. Deitu Jose Riviereri (943 79 19 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48).

## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................. 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelehenetik larunbatera .... 17:00etatik 08:30era
asteburu eta jai egunetan............ egun osoa
Arrasate
Astelehenetik ostiralera..... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak ....... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............ 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ............... 900 40 05 23
.................... 943 79 78 44
.................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ............... 943 79 12 22
PESA................ 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

## MEZAK

**San Joan parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna) |

**San Frantzisko eliza**

| Larunbata | |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz) |
| Igandea | |
| 09:00 (euskaraz) | 12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) |

**Uribarri parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz) |

**San Andres eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |

**Santa Teresa eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz) |

**Santamañako eliza**

| Jaiegun bezpera eta larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (gaztelaniaz) | 12:00 (gaztelaniaz) |

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Egubakoitza, 9**
• Zabala, Zarugalde

**Zapatua, 10**
• Ruiz, Magdalena

**Domeka, 11**
• Morales, Araba

**Astelehena, 12**
• Azkoaga, Ferrerias

**Martitzena, 13**
• Azkoaga, Iturriotz

**Eguaztena, 14**
• Corcuera, Aranbarri

**Eguena, 15**
• Irizar, Erguin

## PREBENTZIO, GIZARTERATZE eta DROGOMENPEKOTASUN TEKNIKARIA

Arrasateko udalak, funtzionario interino baten bitartez, Prebentzio, Gizarteratze eta Drogomenpekotasunerako Teknikaria lanpostua bete nahi du, aldi baterako.

· OINARRIAK: Udaletxean jaso daitezke.

· INSTANTZIAK: martxoaren 29 arte, berau barne, aurkeztu daitezke.

· MEMORIA: apirilaren 10 baino lehen memoria bat aurkeztu behar da gai honen inguruan: "Prebentzioa eta Gizarteratzea udal eremuan".

ARRASATEKO UDALA — Pertsonal Saila

# Egingo zenuke tatuajeren bat zure gorputzean?

*2010. urtean, 10 lagunetik 8k tatuajeren bat eramango dute*



**Joseba Gabilondo**
**(17 urte)**
**Ikaslea**

Bai, sorbalda inguruan ikur tribal bat tatuatuko nuke.



**Arantxa Arregi**
**(35 urte)**
**Etxekoandrea**

Athleticeko ezkutua egingo nuke, omoplatoan-edo.



**Siska Nieves**
**(33 urte)**
**Langilea**

Ez nuke egingo tatuajerik. Tatuajeak ikustea gustuko dut, baina ez niretako.



**Maia Etxeberria**
**(49 urte)**
**Langilea**

Egitekotan, behinik behin, kentzen diren horietako bat egingo nuke. Izurdea margotuko nuke, orkatilan.



**Sandra Lopez**
**(26 urte)**
**Langilea**

Egingo nuke, bai: eguzkia zilborrean eta zaldia garondo aldean.



**Juan Jose Lamas**
**(30 urte)**
**Langilea**

Jendea tatuajeekin ikustea gustuko dut, baina nik ez nuke tatuajerik egingo, ez.



**Mikel Lasaga-Heriz**
**(14 urte)**
**Ikaslea**

Bai, horixe. Dragoi txiki bat aukeratuko nuke, sorbaldan-edo eramateko.



**Manuel Moralejo**
**(26 urte)**
**Langilea**

Nik badaukat bat: dragoi bat besoan. Gogoz hartu, eta egin nuen.




GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

## USTEAK USTE

*Iker B.*

**Marijo joan zen eta Iker dator. Iker B., horrela, bere misterio puntuarekin.**

**Datorren astean etorriko da. Aurreratuko dizuet arrasatearra dela, eta etxe honetan oso etxekoa. Bekadun eta kolaboratzaile izana da gurean, hegaldian aireratu zen arte. Ipar haizeak, ordea, hegoaldera dakar bueltan, etxera.**

**Arrasatearra dela azpimarratu dut. Eta azpimarratzekoa da. Izan ere, Arrasate Pressek langile gutxi izan ditu arrasatearrak. Eta, nire akorduan, zuzendari bakarra herrikoa, Joxe Aranzabal, hau bi alditan.**

**Nik Tolosan ikasi nuen batxiller, herria papeleraz josita zegoenean. Han bazen papelero eskola, eta nire ikaskideen heren batek edo papelero ikasteko asmoa zuen.**

**Debagoienean toki hedabideak bai, sortu ditugu, baina eskolarik ez, eta zaletasuna piztu ere apenas. Meakulparen bat tokatuko zaigu, ziur.**

**Baina oraingoan, Iker B. arrasatearra da. Datorren astean hasita, berak kontatuko dizkizue hemendik aurrerakoak. Beraz, amaitu da nire zubilana.**

**Hastalelengo!**

**Mikel Irizar**

## astea bi hitzetan

### Istripua Kanpanzarren
Egubakoitz gauean, hilak 2, tenperaturak behera egin zuen nabarmen, eta izotza ere egin zuen inguruko errepideetan. Horren ondorioz, Elorriorantz zihoan kamioi bat irrist egin eta irauli egin zen. Kamioaren atzeko atoia behera joan zen, eta zeraman zama guztia galdu zuen. Zorionez, gidariari ez zitzaion ezertxo ere gertatu, baina errepidea goiz osoan moztuta izan zen.

### Fagor Brasilera
Pasa den astean, hitzarmena sinatu zuen Fagor Ederlanek, Brasilen lantoki bat irekitzeko. Brasilgo hego elkialdean irekiko du, Sao Paulo eta Rio de Janeirotik gertu.

Datozen urteotan, Ederlanek nazioartekotze plan estrategikoa egin nahi du Hego eta Ipar Amerikan. Egitasmo horren barruan ireki dute lantegia.

### Irizar Indiara
MCCko beste enpresa batek, Irizarrek, Indian irekiko ditu beste bi lantegi. 30'9 milioi pezetako kapitala dute, baina 1.447 milioi pezetako inbertsioa egingo dute datozen hiru urteotan. Enpresa berriak Irizar-TVS izena izango du.

### Euskalgintza kalean
Euskalgintzak azkenaldian jaso dituen eraso zorrotzak salatzeko, kale agerraldia egin zuten pasa den egubakoitzean, hilak 2. Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatu zuen, eta euskalgintzaren inguruko zenbait talderen babesa ere jaso zuen. Euskarari erasorik ez, hizkuntza zapalkuntza borrokatu lelopean egin zuten manifestazioa.

### Merkatarien batzarra
Gipuzkoako Merkatarien Ganberak eta Debagoieneko merkatari elkarteak batzarra egin zuten pasa den eguenean Monterron jauregian. Merkataritza Ganbera zer den azaldu eta Debagoienerako prestatu duen ekintza planaren berri eman zieten Arrasate, Oñati, Bergara eta Aretxabaletako dendariei.
Informazioa emateaz gain, merkatariek zelan lan egiten duten jakin gura izan du Gipuzkoako Merkatarien Ganberak; eta euren iradokizunak ere jaso zituzten, horrela, elkarrekin lan egiteko aukera izateko.

### Zuhaitz eguna
Martitzenean ospatu zuten Mondragoen. San Andres, Erguin Herri Eskola, La Merced, San Viator, Musakola Herri Eskola eta San Frantzisko Xabier Ikastolako gazteek 250 haritz landatu zituzten Garagartzan. Eurekin batera, urtero moduan, Mondragoeko zenbait erretiratuk ere jardun zuten lanean. Udaleko Ingurumen Sailak antolatzen du, Zuhaitz eguna.



UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Gazte bat atxilotu eta Jose Mari Loiti kolpatu zuten eguazten gauean



Mondragoeko Goi Eskola Politeknikoko ikasle bat, Harkaitz Rodrigez, astelehen gauean atxilotu zuen poliziak, beste 14 Haikakiderekin batera. Garzon epaileak Haikaren kontra agindutako operazio poliziala izan zen, "Sugekumea" izenekoa. Guztiak Madrilgo Auzitegi Nazionalera eraman zituzten.

**LOITI KOLPATUTA**

Horren harira, Mondragoen protesta ekintzak izan dira astean. Eguaztenean, zenbait ikaslek greba egin zuten, eta eguerdian eta iluntzean kale agerraldiak izan ziren herrian. Iluntzeko manifestazioan istiluak egon ziren. Tartean, Jose Mari Loiti, Mondragoeko alkate izandakoa, kaputxadun batzuek kolpatu eta lurrera bota zuten. Ondorioz, eskumako eskuan ebakia egin zuen eta puntuak eman behar izan zizkioten Eskualde Ospitalean. EAJk salaketa jarri du. Horrez gain, Ertzaintzarekin ere istiluak izan ziren: adinez txikiko bat atxilotu eta ertzain etxera eraman zuten. Biharamunean pasa zen fiskaltzatik, irainak eta erasoak egitea leporatu zioten. Era berean, herria pintaketez josita agertu zen. Horrez gain, gaurko, egubakoitzerako, borroka eguna zegoen deituta.

Mondragoeko Haikaren iritziz, "PPk agerian utzi du euskal gazte independentistendako alternatiba bakarra kartzela dela".

## Ludoteka berria

Txatxilirekin lankidetzan, Ekin Emakumeak taldeak ludoteka abiarazi gura du aurten, gurasoendako eta 0-2 urte arteko umeendako. Froga hutsa izango da, ondo ateraz gero, aurrera egiteko asmoarekin. Helburua bikoitza du ekimenak: batetik, gurasoei hezkidetza lantzeko aukera ematea, eta bestetik, hizkuntza (euskara) eta euskal kultura umeei transmititzea.

Halaxe jakinarazi zuen Ekinek pasa den astean izandako batzar orokorrean.

Bestalde, 2000. urtean, auzoetan barneratzeko eta auzoetan emakumeendako esparruak sortzeko aurreproiektua egin du Ekinek, eta aurten, proiektu hori abian jartzeko asmoa dutela ere iragarri zuten. Auzo bat aukeratuko dute froga egiteko, eta gero, zabalkunde plana egingo da gainerako auzoetara zabaltzeko.

# "Konpromiso txikiekin, garaipen handiak"

Gazte Ekimenak bultzatuta, herriko zenbait musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte erdialdeko tabernetan, martxoan hasi eta ekaina arte. Euskal preso politikoen egoera geroago eta larriagoa dela ikusita, presoen giza eskubideen aldeko ekimena da. Gazte Ekimenaren ustetan, "guztiok konpromiso txikiak hartzen baditugu, konpromiso horiek garaipen handiak bihur daitezkeela pentsatzen dugu".




**Eguaztenean eman zuten ekimenaren berri, gaztetxean.**

**ASTEBURUETAN**

Asteburuetan izango dira kontzertuak, 19:00etatik aurrera. Hala, oraingo zapatuan, *Eskizofrenia Rock* taldeak joko du Bionan. Horrez gain, talde hauek eman diote baietza ekimenari: *Arkada Social, Kañeria 13, Anger, Des-kontrol, Spank, Septicemia, Versus, Offset, Fase Terminal* eta *Emboscada*. Dena dela, talde gehiagoren partaidetza espero du Gazte Ekimenak. Kontzertuak, berriz, taberna hauetan izango dira: Bionan, Iluntzen, Lagunillan, Basatin, Ekaitzen, Jai Zalen eta Iratin.

## Bilkura atentatua gaitzesteko

Pasa den otsailaren 22an Martutenen izandako atentatua gaitzesteko, ezohiko bilkura deitu zuten EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek. Martitzenean izan zen bilkura, baina ez zuen aurrera egin. Arrazoia hauxe izan zen, alkatearen esanetan: "Otsailean egindako udalbatzarrean, zinegotzi guztiek izan zuten gai hori lantzeko aukera. Gaia landu ere landu zen". Gaineratu zuen, hori horrela izanda, ez duela zentzurik berriro ere gai bera lantzea eta aurrekanpainaren barruan kokatu zuen EAJren, PSE-EEren eta PPren ekimen hau.

## Martxoaren 3koak gogoan

Duela 25 urte Gasteizen izandako gertakari larriak gogora ekartzeko, erakusketa antolatu du Debagoieneko ESK sindikatuak. 25 urte geroago ez dugu ahaztuko izenburupean, gertaeren bideo emanaldia, hitzaldi bat eta panel informatiboak ikusgai izango dira Jai Zale tabernan. Martxoaren 13tik 20ra izango da hori. Gero, martxoaren 24an, Bergaran ipiniko dute, herriko plazan; eta apirilaren 1ean, Oñatin. Horren bidez, ESK-k omenaldia egin gura die Gasteizko gertakarietan parte hartu zutenei, sindikatuaren esanetan, "batez ere, poliziaren balez erailak izan ziren Aznar, Ocio, Barroso, Castillo eta Peredari".

# Txakurrentzako komunak, "Pipi-Can"-ak, herrian

Txakurrek euren beharrak egin ditzaten bi Pipi-Can jarri dituzte Mondragoen, bata San Andresen, Garro Jenerala kalean, eta bestea Zigorrolan, kiroldegiko sarreraren ondoan.

Hirugarren bat ipintzeko ere asmoa badu udalak, Gorostizan, Erguin Herri Eskolaren parean. Eta modu egokian funtzionatuz gero, herriko beste leku batzuetan gehiago ipiniko dituzte.

### ATZERATUTA

Edozelan ere, oraindik Pipi-Canak ipintzen dihardute. Jarri dituzten biei zenbait elementu falta zaizkie: usaindun loreak eta txakur-kakak batzeko zabor poltsak, adibidez. Izan ere, lehenengo hiru Pipi-Canak batera zabaltzea zen udalaren asmoa, baina Gorostizakoa atzeratu dela eta, beste biak ez dituzte guztiz osatu. Gunearen itxidura, zakarrontziak eta kartelak jarri dituzte oraingoz.

Kontuak kontu, horretan dabiltza eta laster izango ditugu Pipi-Canak herrian.




**Oraingoz, bi halako jarri ditu udalak herrian.**

AG AMAGARA
Erdiko kale, 54 behea • Tel.: 943 79 09 09 • ARRASATE



Udaberriko eskaintza

Presta ezazu zure azala udaberrirako.

Martxoaren 9tik apirilaren 9ra.

SOLARIUM
6 saio + 1 doainik = 6.000 pta.



# ALKATEAREKIN BERBETAN

Alkatearen bisita izan zuten Umezaintzako bost urteko umeek. Herriaren inguruko galderak egin zizkioten Xabier Zubizarretari, eta oso baliagarriak izan ziren alkatearen erantzunak, lantzen ari ziren gaia osatzeko.

# KARTETAN, ONENAK

Toki-Argi erretiratuen etxeak kartetako lehiaketak egin berri ditu. Hona hemen irabazleak, ezkerretik eskuinera: musean, Daniel Arizabaleta eta Isidro Izurrategi; antolatzailea, Jabier Zalama; briskan, Dioni Moreno eta Irene Gonzalez -ez dago argazkian; tutean, Fernando Martinez eta Tomas Gonzalez; eta kuatrolan, Jeronimo Moreno eta Jose Manuel Uriarte.



PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

# IGO BIZIKLETARA!

Arrasate Irratiak autobusa aparkatu eta bizikletan egin zuen asteleheneko ibilbidea, Jon Odriozola txirrindulari oñatiarrarekin batera. Bere helburu profesionalez, txirrindularien segurtasun ezaz eta beste kontu interesgarri batzuez egin zuten berba.



# GURA DUZUNA, ESKURA



Emakume baserritar eta artisauen azoka arrakastatsua izan da aurten. Esku hartze handia izan du: 45 saltoki, guztira. Ondo saldu zutela esan zuten hainbat parte hartzailek azokaren ostean. Gero, saltzaile guztiek elkarrekin bazkaldu zuten adiskide giroan.



# DATORREN URTEAN, GEHIAGO

Bazkalostetik eta afalordua arte, Andaluziako folkloreak alaitu zituen Al-Andaluseko bazterrak joan den zapatuan. Afalostean, orkestra baten doinura, gura adina dantza egin zuten elkartekoek. Horrenbestez amaitu ziren Andaluzia Egunaren ospakizunak.









# Estilo berriak



**grupo**

**Amuebladora Mondragonesa**

| | |
|---|---|
| **a. eme. interiores** | ▪ Tel.: 943 79 15 03 |
| **a. eme. sukaldeak** | ▪ Tel.: 943 77 14 92 |
| **centro hogar muebles** | ▪ Tel.: 943 77 14 92 |
| **sofa leku, Zigorrola** | ▪ Tel.: 943 77 14 92 |

**aemeinteriores@euskalnet.net** **amuebmondra@euskalnet.net**

# JOSE ANGEL AGIRRE (ABADEA)

# *«Betidanik gustatu izan*

**Berastegin jaio bazen ere, ataundarra dela dio Jose Angelek. Orain dela 52 urte jaio ziren Jose Angel eta anaia bikia, eta 1971n familia osoa Ataundik Donostiara joan zen. Irakasle izandako apaiz hau orain dela bost urte etorri zen Arrasatera.**

**— Goizetan Eskualde Ospitalean izaten zara. Zer lan egiten duzu?**

— Nire lana da gaixoak bisitatu eta laguntza espirituala eskaintzea. Horrek esan nahi du gaixoak animatzen saiatzen naizela; nire helburua da, hortaz, behar duenari itxaropena ematea.

**— Gaur egun, zer moduz bizi dira abadeak?**

— Jendeak uste duena baino okerrago. Gaur egun, mezak lan gutxi ematen du, eta jendeak uste du hori bakarrik egiten dugula. Horrez gain, batzarrak daude, gauza asko prestatu behar ditugu, eta abade batek bere lana ongi egin gura badu, eguna bete-beteta izaten du.

**— Noiztik pilotarako zaletasuna?**

— Betidanik. Familian beti izan dugu pilotarako joera. Gure osaba Gipuzkoako txapelduna izan zen afizionatu mailan, eta gure aita ere oso ona zen pilotan; hortaz, pilota odolean daramat, nahiz eta futbolean gehiago jokatu.

**— Aurreko astean debuta egin zenuen Uarkapen. Zer-nolako esperientzia izan zen?**

— Zoragarria, aurreko egunak oso urduri igaro nituen, baina kantxaratu orduko, dena ahaztu eta gustura ibili nintzen. Horrez gain, ikusleekin ere berehala bat egin nuen, eta esperientzia ezin hobea izan zen.

**— Uarkapera joan zirenak harrituta geratu ziren abadearen jokoarekin.**

— Partidu ona egin



**«Goñiri ez nioke zigorrik jarriko, baina bere burua gehiago maitatzeko esango nioke»**

# zait pilota»

genuen, baina ez zen horrenbesterako izan. Kontua da jendeak ez zekiela nik pilotan jokatzen nuenik, eta nahiko txukun egiten nuela ikustean, bat baino gehiago harrituta geratu zen.

**— Jendeak gogor apustu egin zuen?**

— Apustuen inguruan ez dakit ezer. Nik, behintzat, ez nuen apusturik egin, baina badakit Erro enpresakoak oso apustuzaleak direla. Guk ez genuen apusturik egin, eta guztia ematera irten genuen kantxara.

**— Beti esan izan da abadeak jatun onak direla. Dietarik jarraitzen duzu puntapuntan egoteko?**

— Ez dut dieta berezirik egiten, baina kirol asko egiten dut. Hamabostean behin, Apotzagako elkartean jarduten dut pilotan, eta zapatuero Makatzenan, Obenerrekan edo San Prudentzion izaten gara.

**— Zure bikotekidea, Txispas, atzelari ona da?**

— Oso ona; bere ezkerra ez da beste mundukoa, baina eskuinarekin bikain moldatzen da. Oso kolpe indartsua dauka, eta bizi-bizi jokatzen du pilota.

**— Gustukoen duzun pilotaria?**

— Gehin gustatzen zaidan pilotaria Titin III.a da, artista da, baina jokalari osoena Haimar Olaizola da: lasaia da, kolpea dauka eta gantxoa ere bikaina dauka.

**— Goñi konfesatzera etorriko balitzaizu, zer zigor jarriko zenioke? Eta zer gomendatuko zenioke?**

— Ez nioke zigorrik jarriko, baina bere burua gehiago maitatzea esango nioke. Nire ustez, bizitzari fruitua lasterregi atera gura dio, eta lasaiago bizi beharko litzateke. Hala ere, oso mutil ona dela iruditzen zait, oso bihotz onekoa.

**— San Isidrotako pilota partiduetan jokatzeko asmorik?**

— Gogoz hartzen badut, bai. Aurreko partidua jokatzeko esan zidatenean, berehala esan nien baietz, eta berriro ere proposatuz gero, ez nuke duda izpirik izango. Gainera, edozeinekin jokatzeko prest nago. ■



# Munduko musikak: Hiru folk talderen k

**Martxoaren 9an, kontzertua egingo da Musakolako kiroldegian, 22:00etan: Ekuatore Gineatik *Hijas del Sol* etorriko zaizkigu; Galiziatik, *Faltriqueira*; eta Euskal Herritik, *Txanbela*. Nahastearen aldeko musika, mugez bestalde begiratzeko bokazioa duten hiru talde bikainen eskutik.**



## HIJAS DEL SOL

**Piruchi eta Paloma izebailobei alaitasuna darie. Egunotan lanpetu samar badabiltza ere, beti daude prest han edo hemen kontzerturen bat emateko. Jendearekin harremana oso gustuko dute.**

**— Zer ikusiko eta entzungo du jendeak Arrasaten?**

— Gure poza eta sentimenduak konpartitzera gatoz. Abestiak entzun ditzaten eta mezua jaso dezaten nahi dugu. Mezu tristeak izango dira batzuetan, baina negar egiten badute, lasai geratzeko izango da, eta ez atsekabezko negarra. Jendea ondo ibiliko da, giro ederra egongo da.

**— Deigarria da doinuen eta mezuen arteko kontrastea.**

— Abestiak unearen adierazpen dira. Egia da gai latzak aipatzen ditugula –gosea, etorkinen arazoak, Afrikaren egoera…–; baina, mezua tristea bada, zertarako tristura gehitu doinuaren bidez?

**— Zaila egin zaizue Ekuatore Gineako musika Europan hedatzea?**

— Hasieran, bai; baina, egia esan, uste baino hobeto hartu gaituzte. Bubiz abesten genuen, eta jendeak jakin-min handia erakutsi zuen, zer esaten genuen jakiteko. Ez gara




# ntzertua izango da martxoaren 9an

## FALTRIQUEIRA

kexatzen. Izan dugun publiko guztiarenganako dugu esker ona; izan ere, artista, publiko barik, paperezko ezpain-zapia da.

**— Zuen herriko musika landu duzue, baina baita pop musika ere. Nahasketan dago gakoa?**
— Mundua nahasketa bat da. Artista leku guztietakoa da.

Nire herrian badakite zer egiten dudan, hortaz, zertarako izango naiz artista nire herrian bakarrik? Hangoa izanik, kanpoko zerbait eramaten badut nire herrira, eurek hobeto ulertuko dute kanpoko baten bidez ezagutzen badute baino. Horrek esan nahi du, nahasketa onerako baldin bada, aldekoak garela beti.

**Pontedeumetik datoz, Coruñatik. 20 urte dituzte, ozta-ozta, eta dagoeneko, Galiziako herri musika freskotasunez eta xamurtasunez bete dute. Bost neskek osatzen dute taldea.**

**— 1996tik hona, zelakoa izan da zuen esperientzia?**
— Sinesgaitza da gertatzen ari zaiguna. Lagunendako jotzen hasi ginen, eta gero, Galiziako folk jaialdi txikietan. Bat-batean, mundu-bira baten sartuta geunden, Mike Oldfieldekin, 300.000 lagunen aurrean, Luar Na Lubrerekin, Oskorrirekin diskoa grabatzen…

**— Tradizioa eta modernotasuna uztartzen dituzue, ezta?**
— Bai. Galizian, herri musika taldeek egiten dutena da, nagusiek kantatzen zituzten abestiak jasotzea eta berdin-berdin abestea, emakume nagusien ahotsa imitatuz. Guk abestia jasotzen dugu, baina buelta ematen diogu. Polifonia lantzen dugu: ahots bat baino gehiago sartu, hitzak eta ahapaldiak aldatu, soinuarekin jolastu, goxo-goxo kantatu...

**— Publiko galiziarrak zelan hartu zuen berritasun hori?**
— Garbizaleek kritikatu egin gintuzten. Baina, jende asko aspertuta zegoen betiko estiloarekin; hortaz, gehienek oso ondo hartu gaituzte.



**— Noraino iritsi gura duzue?**
— Diskoa grabatu nahi genuke. Hainbat eskaintza ditugu, baina oso zaila da aukera egitea, batik bat, disko etxe handiek komertzialtasunera begiratzen dutelako, eta guk nahi duguna da harro sentiaraziko gaituen diskoa egitea, alegia, gure estiloari eustea.

## TXANBELA

**Hamasei urteko esperientzia dute Euskal Herriko musika ikertzen eta eskaintzen. Arrasaten, doinu lasaiak eta biziak joko dituzte.**

**— Euskal herri musikak badu berezko errepertoriorik, ala edozein girotara egoki daiteke?**
— Inongo herri musikak ez du berezko girorik, guztiek dute oinarri unibertsala. Oinarri horiek hartuta, herri bakoitzak berezkotasuna eman die, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago aldatuz. Bizkaiko eta Burgosko joten artean ez dago alde handirik.



**— Harridura sortzen du euskal tresna tradizionalak hain tradizionalak ez diren beste batzuekin batera entzuteak, biolina kasu?**
— Biolina ere euskal musika da: XVIII. mende arte biolin jotzaile asko zeuden, eta kale-musikari asko biolin jotzaileak izaten ziren. Beste musika tresna asko ere gutxiagotu egin dira: zarrabetea, txilibitua, alboka… Txanbelak lehengo tradizio horiek berreskuratu baino ez du egin.

**— Leku bateko musikarendako, beste herri musikekin nahastea onuragarria ala arriskutsua da?**
— Herri musikak biziak dira, elkarrekin harremanak izan dituzte. Bakoitzak nahi duen neurrian jotzen du besteengana. Guk horrela jokatzen dugu: gurea ezagutu, baina kanpokoa entzun. Hori betidanik egin izan da; bestela, zelan izango genituzke hainbeste mazurka edo rigodoi?

# Emanaldiak Gure-Lekun eta Iamain

Egubakoitz honetan eta datorrenean, zuzeneko emanaldi bana egingo da Arrasateko bi tabernatan. Gaur, hilak 9, *Psikotiko Moon* rock talde gasteiztarrak joko du Zarugaldeko Gure-Leku tabernan. Gauerdian hasiko da kontzertua.

*Psikotiko Moon* taldea hiru lagunek osatzen dute, eta euren berezitasuna da ingelesez abesten dutela. Euren esanetan, zuzeneko emanaldietan eskaintzen dute euren onena.

**IAMAI**

Kontzeziño kaleko Iamai kafetegiak antzerki emanaldia antolatu du hilaren 16rako. Kasu honetan ere, Gasteiztik etorriko da talde gonbidatua: *Detritus Teatrus. De Tritus Corazón* muntaia eskainiko digute, gauerditik aurrera.

Istorio xelebre eta barregarria da. Komikiaren estetika erabili du antzerki taldeak, baliabide gutxi baina irudimen aberatsaren bidez aziozko eta amodiozko kontakizuna osatzeko.



# Aurten, lehiakide gehiago

Gure-Leku tabernak antolatutako arte plastikoen lehiaketak garrantzia irabazi du urterik urte. Aurten, hirugarren aldian, 28 lan aurkeztu dituzte, iaz baino bost gehiago. Joan den eguenetik erakusgai daude lan guztiak tabernan.

**HAINBAT ESTILO**

Aurten, beste berezitasun bat barietatea da. Gehienak margolanak dira, baina pare bat eskultura eta lan misto ere aurkeztu dituzte. Teknika eta estilo aldetik ere, denetarik dago: akuarela, olioa, pastela... eta, estiloari dagokionez, kubistak, errealistak, inpresionistak, abstraktuak eta beste batzuk.

**PUBLIKOAREN HITZA**

Horietatik onena zein den apirilaren 22an erabakiko dute, egun horretan aukeratuko dute-eta lehiaketako irabazlea. Horretarako, publikoak botoa eman ahal izango du. Botoek finalistak erabakiko dituzte, eta horien artean hautatuko du Agustin eta Melchor Murillo anaiek, Cesar Cimianok eta Jose Luis Erizek osatutako epaimahaiak. 125.000 pezeta eskuratuko ditu irabazleak. Orain arte, Eluska Zabalo arrasatearrak eta Daniel Laskurain bergararrak irabazi dute Gure-Lekuko lehiaketa.

# Jazza, Arrasate Musikalen eskutik

Martxoaren 10ean, Arrasate Musikalek antolatutako jazz kontzertua izango da. Gasteizko Luis Aranburu musika eskolako Big Band taldeak eskainiko du kontzertua. Iker Sanchezen zuzendaritzapean, *La chica de Ipanema, Bésame mucho, Moonlight Serenade, When the Saints go marchin' in* eta beste lan ezagun batzuk eskainiko dituzte. Amaia antzokian izango da, 20:30ean.

**ZIKLOA**

Emanaldi horrekin, hiru kontzertuz osatutako musika zikloa hasiko da. Hurrengo emanaldiak martxoaren bukaeran eta apirilean izango dira. Ekintza horren bidez, lehen bananduta egiten ziren kontzertuak bateratu gura izan ditu Arrasate Musikalek, hainbat estilotako musika eskainiaz.

Big Band-en ondoren, Arrasate Musikaleko bandak eta Juan Falú gitarrajoleak eskainiko dute kontzertu bana.




Txotx egin!
Astelehenetik asteazkenera enkarguz
Ostegunetik igandera zabalik
Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak

ESTELLA ORTOPEDIA
Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna
Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua
Etxerako laguntza teknikoak
RPS 421/97
- Eusteko sistemak
- Garabiak
- Eskaren aurkako airezko koltxoiak
- Segurtasun izarak

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

*Super Net Kontua*

EUSKADIKO KUTXA




# Zure aurrezkiekin errentagarritasun handienean nabiga dezazun.

Super Net Kontua orain eskuragarri. Lehen urratsa eman dugu. Datuek izugarrizko arrakasta erakusten dute. 2000ko ekainetik hona, 10.000 pertsona baino gehiago sartu da banku elektronikoan Super Net Kontuaren bidez. Zure moduko pertsonak dira. Batzuk adituak badira ere, gehienek ez dute ezta oinarrizko ezagupenik ere. Lehenengo, euren aurrezkiak jarri zituzten. Orain, euren inbertsioa banatu egin dute, kontuko saldoak fondoetara, baloreetara... mugituz. Erosotasun osoz mugitu ere: ordenagailutik. Eta komisiorik ordaindu gabe. Gainera, beste aukera batzuk bilatzen dituzten artean, pezeta bakoitzari, gutxienez, %3ko UTBko etekina ateratzen diote. Oraindik erabakia hartu ezinik bazabiltza, Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletara joan eta pausoa egitera animatzen zaitugu. Zuk ere jasoko duzu behar duzun laguntza.

**EZAUGARRI NAGUSIAK**

· Dirua askatasun osoz eskuratzeko aukera ematen du
· Transferentziak eta intsuldaketak egin ditzakezu beste kotu batzuetara.
· Kontutik baloreen salerosketara, inbertsio fondoetara... jo daiteke zuzen-zuzenean.

***ZENBATEKOAREN ARABERAKO ORDAINKETA LEHEN PEZETATIK HASITA**

0tik 2.999.999 pezetara %3ko UTB (% 2,960ko nominala).
3tik 10 milioi pezetara %4ko UTB (3,928ko nominala)
· Mantentze komisiorik gabe.
· Interesak egunero kalkulatuta.
· Interesak hilero ordainduta.

**BALDINTZAK**

· **Ez du helbideratzerik onartzen.**
· **Gehienez, 10.000.000 pezetako zenbatekoa.**
· Kontua sukurtsaletan irekita.
· Kontu horrek pertsona fisikoak bakarrik onartzen ditu.
· Bezero bakoitzeko kontu bakarra ireki ahal izango da.



**Kablea luzatzen dizugu Internet bidezko Bankan sartzeko.**

www.cajalaboral.es / 901 333 444

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

## Pilota jaialdia

Asteburuan, pilotazaleek izango dute zerekin gozatu; izan ere, zapatuan, hilak 10, bigarren mailako eskuz binakako finala jokatuko da Uarkapen. Minguezek eta Pinedok Arbizu eta Pascual izango dituzte aurrez aurre. Hala ere, partidu hori baino lehen, beste bi partidu jokatuko dira: lehenik eta behin, eskuz banaka, Beloki II.a eta Galartza XI.a arituko dira; eta segidan, beste pilota partidu bat izango da: eskuz binaka, Unanuek eta Zearrak Tirapu eta Patxi Ruizen aurka neurtuko dituzte indarrak. Pilota jaialdi ederra, hortaz, zapatuan , 16:45ean hasita.

## Mendi eski ibilaldia

Aloña Mendi, Besaide eta Pol-Pol mendizale elkarteek XIII. mendi-eski ibilaldia antolatu dute martxoaren 18rako. Derrigorrezkoa izango da federatua egotea, eta norberak eraman beharko du material guztia. Hau da, eskiak, larruak eta kutxilak. Izena ematea 3.500 pezetakoa da, eta martxoaren 14ra arte egin ahal izango da. Zapatuko afaria, aterpean lo egitea, domekako gosaria eta janari poltsa antolatzaileen esku. Argi ibili, parte hartzaile kopurua mugatua da eta!

# Emaitza onak Gipuzkoako txapelketan

Aurreko domekan, Gipuzkoako karate txapelketa izan zen Lasarten. Guztira, 150 parte hartzaile izan ziren, eta bederatzi gaztek ordezkatu zuten Arrasate. Infantil eta gazte mailakoek parte hartu zuten, eta lorturiko emaitzak ez ziren nolanahikoak izan: Jon Rodriguez 70 kilo azpiko txapeldun izan zen, eta Josu Gonzalezek hirugarren postua lortu zuen. Goizeder Caballero, 70 kilo gorakoetan, bigarren izan zen. Neskak ere fin ibili ziren: Laida Ramosek kata kategorian bigarren egin zuen, eta Zara Galan gaztetxoa ere bigarren izan zen infantiletan. Carlos Sanchez, Denis Soriano, Alex Amado eta Izadi Arostegik ez zituzten goiko postuak bete, baina lan txukuna egin zuten. Gazte hauen entrenatzailea, Iñaki Muñoz, pozik agertu da karatelari hauek egindako lanarekin. Baina oraindik ba dute zer hobetu.



# Eskola arteko gimnasia erritmikoa

Zapatuan, eguerdiko 12etan eskola arteko Gipuzkoako gimnasia txapelketako lehen aldia jokatuko da Uarkapen. Arrasate Dragoi Gimnasia taldeak antolatu du txapelketa, eta Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Eibar eta Arrasateko ikastetxeek esku hartuko dute.

Hain justu, San Frantzisko Xabier ikastetxeko neskek ordezkatuko dute Arrasate. Alaitz Ajuria, Irati Aranegi, Saioa Arriola, Leire Gonzalez, Lorea Medina eta Maite Sanchezek jardungo dute esku libre eta taldekako modalitateetan.



ARRASATE HOTELA
Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

MONTE TABERNA
CACIQUE
CACIQUE JAIA
Martxoak 10 Larunbata
Aratustetako argazkiak ikusgai

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

## FUTBOLA
### Hobetzen

Aspaldi honetan, gauzak aldatu egin dira Atxabalpen, eta badirudi batez ere lehen taldea beste jarrera bat erakusten ari dela. Aurreko astean, zeingehiagoka zaila izan zuten Dabiden eta Raulen mutilek, Pedrusko sailkapenean laugarren dago eta. Hala ere, jokalari zuri-moreek hiru puntuak bereganatzeko asmo garbia erakutsi zuten, eta Keixik penaltiz lorturiko gol bati esker, etxeko taldea goiko postuetatik geroago eta hurbilago dago.

## SASKIBALOIA
### Bazen ordua

Ordua zen Kenci Arrasatek balio duena erakusteko, eta azken bi jardunaldietan, aurreko urtean ohitu gintuztenera bueltatu dira, hau da, asteburuz asteburu irabaztera.

Viajes Marfilek ezin izan zituen Landerren mutilak gelditu. Hasiera-hasieratik aurreratu ziren (8-0), eta lehen zatiaren amaieran 16 puntuko aldea zuten. Minutuek aurrera egin ahala, Viajes Marfil taldea hobeto jokatzen hasi zen, eta 87nako berdinketa ere izan zen. Orduan etorri zen arrasatearren erreakzioa, hainbat jokaldi on lotu, eta epaileak amaiera adierazi zuenerako markagailuak 100-94 adierazten zuen.

## ESKUBALOIA
### Zazpi jarraian

Bernardo Balerdiren mutilek sekulako bolada daramate. Azken zazpi partiduak irabazi egin dituzte, eta aurreko asteburuan CAF Basain tadeak ez zuen inolako oztoporik jarri. Norgehiagoka kanpoan jokatu bazuten ere, markagailuan momentu oro etxeko taldea izan zen aurretik; emaitza 22-26 izan zen. Oraingo asteburuan, etxean jokatuko dute. Mutriku izango dute aurkari, eta partidu zaila izango den arren, zortzigarrena ere lor daiteke.

## Emaitzak

**FUTBOLA**
- **Erregional maila**
  Mondra 1 – Pedrusko 0
- **Lehen mailako gazteak**
  Mondra 4 – Billabona 1
- **Bigarren mailako gazteak**
  Mondra 4 – Mariño 2
- **Ohorezko kadeteek**
  Ilintxa 0 – Arrasate 3
- **Bigarren mailako kadeteak**
  Tourin 4 – Arrasate 0
- **Infantilak**
  Aloña Mendi 2 – Arrasate 0

**ESKUBALOIA**
- **Nagusiak**
  Beasaingo CAF 22 – Arrasate 26
- **Gazte mailakoek**
  Arrasate 22 – Urola 20
- **Kadeteak**
  Arrasate 20 – Usurbil 18

**SASKIBALOIA**
- **Lehen mailakoak**
  Kenci Arras. 100 – V. Marfil 94
- **Juniorrak**
  Ordizia 62 – Kenci Arrasate 62
- **Kadete mutilak**
  Intxaurrondo 62 – Kenci Arras. 66
- **Kadete neskak**
  Kenci Arras. 48 – S. Tomas Lizeoa 52

**PILOTA**
- **Udaberri Saria**
  **Bigarren mailako kadeteak**
  Arrasatek 4 – Mundarrok 22

## Jokatzekoak

**FUTBOLA**
- **Ohorezko kadeteak**
  Arrasate - Antiguoko
  Zapatuan, 10:00etan
- **Neskak**
  Arrasate – Bergara
  Zapatuan, 16:00etan
- **Ohorezko infantilak**
  Arrasate – Tolosa
  Domekan 10:00etan
- **Bigarren mailako kadeteak**
  Arrasate – Aitzgorri
  Domekan 11:45etan

**SASKIBALOIA**
- **Lehen mailakoak**
  Kenci Arrasate – Pais Vasco XXI
  Zapatuan ,18:00etan, Iturripen
- **Seniorrak**
  Kenci Arrasate – Lux SKE
  Zapatuan, 16:00etan, Musakolan
- **Juniorrak**
  Kenci Arrasate – STL Azkune
  Zapatuan , 16:00etan, Musakolan
- **Kadete mutilak**
  Kenci Arrasate – Easo Cafes Aitona
  Zapatuan, 12:15etan, Musakolan

**ESKUBALOIA**

**Seniorrak**
Arrasate Almen – Mutriku
Domekan, 12:00etan, Iturripen


Instalazio berriak
Auto erakusketa
zabalagoa

ADI! HELBIDE BERRIA DUGU
Orain, San Andres 10 D.an gaude.
Gasolindegiaren parean. 53 P.K
Tel.: 943 79 05 86

TAKOLO AUTOAK

Bisita gaitzazu.

OPEL

## Emaitzak

**A taldea**

Txeyenex 9 – AL Ion 2
IKP 7 – Serengeti 2
Leya 1 – Makanaki FC 0
YK Azkena 4 – Komando Alpargat 5
Goma2 1 – The Pippol 0
Aurrera Bolie 3 – Txapime Dribling
AC Surcos 7 – Kanpanzar Harrobia 3
Bikain Akademia 7 – Betrayer 5
Lasagabaster 1 – Katxiporra 0

**B taldea**

Rayo Aldeano 7 – Alai Gozokiak 3
Pepelus.com 0 – Full Duplex 6
Usotz Potroak 4 – AT Celaya
AKTA 7 – Abocajarro 4
KJ Basati 2 – Iriztu 4
Kamasutra 15 – New Makai
Fragel Gol 4 – Irati STS 9
Txotx 2 – Etxerat Taberna 3

## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Txap Dribling | 13 | 10 | 1 | 2 | 60 | 30 | **21** |
| Aurrera Bolie | 13 | 10 | 1 | 2 | 54 | 26 | **21** |
| Lasagabaster | 13 | 9 | 2 | 2 | 61 | 34 | **20** |
| YK Azkena | 13 | 9 | 2 | 2 | 51 | 34 | **20** |
| Kom Alpargat | 13 | 9 | 1 | 3 | 62 | 51 | **19** |
| Bikain Akad | 13 | 7 | 4 | 2 | 59 | 51 | **18** |
| AC Surcos | 13 | 7 | 4 | 2 | 70 | 46 | **18** |
| Goma2 | 13 | 7 | 3 | 3 | 62 | 44 | **17** |
| IKP | 13 | 8 | 1 | 4 | 50 | 49 | **17** |
| Serengeti | 12 | 5 | 3 | 4 | 37 | 39 | **13** |
| Katxiporra | 13 | 5 | 1 | 7 | 42 | 58 | **11** |
| Leya | 12 | 3 | 4 | 5 | 29 | 34 | **10** |
| Kanp Harrob | 12 | 4 | 1 | 7 | 35 | 55 | **9** |
| Txeyenex | 13 | 3 | 0 | 10 | 35 | 57 | **6** |
| Makanaki FC | 13 | 2 | 1 | 10 | 15 | 23 | **5** |
| Betrayer | 13 | 1 | 2 | 10 | 51 | 68 | **4** |
| AL Ion | 13 | 1 | 1 | 11 | 41 | 96 | **3** |
| The Pipol | 13 | 0 | 0 | 13 | 7 | 24 | **0** |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Iriztu | 13 | 11 | 1 | 1 | 64 | 21 | **23** |
| Etxerat tab | 12 | 10 | 1 | 1 | 81 | 31 | **21** |
| Rayo Aldeano | 13 | 8 | 2 | 3 | 77 | 44 | **18** |
| Kamasutra | 13 | 7 | 3 | 3 | 66 | 37 | **17** |
| AT Celaya | 12 | 8 | 1 | 3 | 51 | 41 | **17** |
| Irati STS | 12 | 7 | 1 | 4 | 65 | 42 | **15** |
| Usotz Potroak | 12 | 7 | 1 | 4 | 55 | 26 | **15** |
| Fragel Gol | 12 | 7 | 0 | 5 | 54 | 46 | **14** |
| Pepelus.com | 12 | 7 | 0 | 5 | 42 | 37 | **14** |
| DKB Kobate | 12 | 5 | 2 | 5 | 44 | 44 | **12** |
| AKTA | 13 | 5 | 1 | 7 | 50 | 49 | **11** |
| Full Duplex | 12 | 5 | 1 | 6 | 47 | 42 | **11** |
| EPEH | 11 | 5 | 1 | 5 | 36 | 55 | **11** |
| KJ Basati | 12 | 4 | 1 | 7 | 55 | 52 | **9** |
| Txotx | 13 | 3 | 2 | 8 | 27 | 57 | **8** |
| Alai Gozokiak | 12 | 2 | 1 | 9 | 32 | 61 | **5** |
| Abokajarro | 12 | 2 | 0 | 10 | 39 | 78 | **4** |
| New Makai | 12 | 2 | 0 | 10 | 24 | 87 | **4** |
| Sas T | 12 | 1 | 1 | 10 | 20 | 74 | **3** |



**ISTILUAK**

Aurreko asteburuan ere, ostikadak baloiari beharrean beste zerbaiti edo norbaiti eman dizkio batek baino gehiagok, eta antolakuntzak neurriak hartu ditu. Zapatu arratsaldean, AKTA eta Abokajarro taldeen artean istiluak izan ziren, eta ondorioz AKTA taldeko Mikel Gonzalez jokalariari lau partiduko zigorra ezarri diote. Horrez gain, taldeak fiantza galduko du, eta jokalariak zigorra betetzen ez badu, taldea kanporatua izango da. Hori gutxi balitz, Aurrera Boliek eta Driblingek jokatu zuten partiduan, Asier Madinabeitiak lekuz kanpoko ostikada eman zion aurkari bati, eta antolatzaileek partidu bateko zigorra ezarri diote jokalari horri. Aurrerantzean, argi ibili, antolatzaileak ez daude-eta txantxetarako.

## Hurrengo partidak / 14. jardunaldia

**Martxoak 10, zapatua**

| Zaldibar | | Epailea |
|---|---|---|
| 10:50 | Irati STS – KJ Basati | Leya |
| 12:00 | AL Ion – Leya | KJ Basati |
| 13:00 | YK Azkena – Txapime Drib | AL Ion |
| 14:00 | Bikain Akad – Lasagabaster | Txap Dribling |
| 15:00 | Aurrera Bolie – Betrayer | Lasagabaster |
| 16:00 | Kom Alpargat – IKP | Betrayer |
| 17:00 | Akta – New Makai | IKP |
| 18:00 | Txotx – EPEH | AKTA |
| 19:00 | DKB – Fragel Gol | EPEH |

| Iturripe A | | |
|---|---|---|
| 14:50 | Goma 2 – Kanp Harrob | Abokajarro |
| 16:00 | Usotz Potroak – Abokajarro | Goma2 |
| **Iturripe B** | | |
| 14:50 | Rayo Aldeano – Full Duplex | Kamasutra |
| 16:00 | Etxerat Taberna – Kamasutra | Full Duplex |

**Martxoak 11, domeka**

| Zaldibar | | |
|---|---|---|
| 11:50 | Pepelus.inserso.com – SasT | Serengeti |
| 12:00 | Txeyenex – Serengeti | SasT |
| 13:00 | Alai Gozokiak – AT Celaya | Txeyenex |

**Atsedena:** Iriztu, A.C Surkos


Gambrinus garagardotegia
• Menua: bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

MADINA ZURAK
Aroztegia
Olak, aglomeratuak, kontratxapatuak, tablexa, ateak, egurrezko leihoak, oin-inguruak, zangoak, aroztegiko osagarriak.
Zarugalde, 38 •Tel.: 943 79 13 78

beinke

UGARTE
Industria hornigaiak
San Andres, 2 Pab.5-6
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

# 'Gran Hermano'ren eragina aztergai

## Igo Autobusera Eguaztenean 10:15ean

Martxoaren 18an, Gran Hermano saio arrakastatsuaren bigarren zatiari hasiera emango dio T5 kateak. Berriro ere, hamar lagun etxe baten sartuko dira, 100 egun igarotzeko asmoarekin.

100.000 lagun baino gehiagok egin dute casting-a, 'Gran Hermano' saioan esku hartzeko asmoz.

Gustatu edo ez, ezin ukatu telebistara izugarrizko iraultza ekarri zuela 'Gran Hermano'ren lehen zatiak. Bigarrena hain arrakastatsua izango ote den, berriz, ikusi egin behar.

Bigarren zatia hasi baino lehen, Arrasate Irratiak 'Gran Hermano'ren gaineko berbaldia eskainiko du. Horretarako, Edorta Arana irakaslea, telebistan aditua, izango da saioan. Saioa zergatik izan den arrakastatsua, zer ikusle-kopuru lortu duen eta Europan zein eragin izan duen aztertuko dute eguaztenean, martxoaren 14an, 10:15etik aurrera.




## Gazte bulegoa zuzen-zuzenean

Hemendik aurrera, eguenero, gazte bulegoaren inguruko informazioa emango du Dorleta Kortazarrek, bulego horretako arduradunak. 10:15ean hasita, gazteei interesgarri zaizkien beka, lehiaketa eta ikastaroen berri emango du Nerea Kortazarrek.

## Binakako pilota finala

Domekan jokatuko dute eskuz binakako pilota finala, eta Arrasate Irratian, astelehenean, partidu horren gainean eztabaidatuko dute 10.15etik aurrera.

Horretarako, Arrasateko pilotariak gonbidatuko ditu Aitzibier Aranburuzabalak.

### kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoaren 17an: **"Terminal Face"** (Techno jaia) 12etan (**2** sarrera)

Martxoaren 20an: **The Young Gods** 12etan (sarrera **1**)

Martxoaren 22an: **Apocalyptica** (sarrera **1**)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** .......................

**Tel.:** .............................

**Zein Kontzertu?** ....................

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

arrasate **irratia**

FM 107.7

**ASTELEHENA - OSTIRALA**

- 09:00 **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.**
- 09:55 **Eguneko hitzorduak.**
- 10:00 **Igo autobusera I.**
- 11:00 **Albistegia.**
- 11:15 **Igo autobusera II.**
- 12:30 **Agenda, eskelak...**
- 12:45 **Albistegi nagusia.**
- 14:00-18:00 **Errepika.**

**ASTELEHENEAN**

- 20:00 **Jokoz Kanpo.**
- 21:00 **Draxtor.**
- 22:00 **In Session.**

**MARTITZENEAN**

- 20:00 **Hi bizi hadi.**
- 21:00 **Jakidiplost.**

**EGUAZTENEAN**

- 20:00 **Binilo ordua.**
- 21:00 **KK2A.**

**EGUENEAN**

- 20:00 **Ostegun-Ero.**
- 21:00 **Arakatzen.**

**EGUBAKOITZEAN**

- 20:00 **Planing Prest.**
- 21:00 **Kale Doinuak.**

**ZAPATUAN**

- 10:00 **Bihurrikerietan.**
- 11:00 **Musika klasikoa.**
- 12:00 **Bi zoro ta zu.**

**Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak**

Super Armeko

- *Fabrikako prezioa*
- *Erakusketa zabala. 2 solairu*
- *Kalitatea eta diseinua*
- *Azken berrikuntzak*

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

**TTUKUN**

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Gaur egun, Santa Barbara eta Monterron parkeak aski ezagunak badira ere, duela urte batzuk Sola Jauregiaren lorategiak ziren ezagunak herrian. Besteak beste, sekulako zuhaitzak ei zituen, orain Monterronen daudenak baino ederragoak eta India eta horrelako herrialdeetatik ekarritakoak. Grupo San Juaneko etxebizitzak eraikitzeko bota zen hura guztia, eta gutxi gorabehera ordukoxea da oraingo asteko argazki zaharra, 1948.urtekoa, hain justu. Ikusten denez, dagoeneko zuhaitz guztiak botata zeuden, eraikitzeko gertu. Izan ere, garai hartan, Mondragoeko etxebizitza askotan familia bat baino gehiago bizi zen, ez zegoelako guztiendako etxebizitza nahikorik. Eta jakina, Solatarren jauregiaren lorategiak ere bazeuden, sekulako lursaila etxebizitzak egiteko.

Estatuak etxaldea konfiskatu eta jauregia bera ere bota zuen; gutxi gorabehera, orain sindikatuen etxea dagoen lekuan zegoen Solatarren jauregia.

**Argazkia:**
Valeriano Martinez.
**Berriemailea:**
E. Iñarra.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Edertasunaren Gida

**CARMEN**
**Ile apaindegia**
**Solariuma**
Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

*Jose Antonio*
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA
Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSi
ILE APAINDEGIA
Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

ILEA
Ferrerias, 14. 943 79 87 62

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA
Kanpandorpea, 4
Tel.: 943 79 12 19

- Larruzko artikuluak
- Bisuteria
- Opariak

*Aholkularitza estetika eta makilajean.*

LANCASTER GUERLAIN Elizabeth Arden

JADE
ILE APAINDEGIA
Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

EDERTU
- Ileapaindegia
- Solarium bertikal eta horizontala



*Eskaintza berezia solariumean*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

Lore



Olarte,10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORAÕNEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

Hilero aterako dugu Edertasun Gida.
Zure zerbitzuak iragarri
nahi izanez gero, deitu
943 71 23 91 telefonora

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

# ZELAIA

OÑATI

*1970. urtean sortua*

Santa Marina, 3 - Telefonoa: 943 71 62 81



## *Sukaldeak*

*... urte askotan goza ditzazun pentsatuta.*

*... granito eta silestonezko gainak.*

*... instalakuntza profesionala, akabera bikainak.*

*... etxetresna elektrikoen ekipamendu osoa.*

*... norberari egokitutako sukaldeen proiektu eta diseinuak.*

## *eta Bainuak*

*... zure bizi-estiloarekin bat datozenak.*

*... aukera handia komun eta bainuko altzarietan.*

*... leku txikietan prestazio handiak eskaintzen dituzten hidromasajerako bainerak.*

*... bainuko kabinak eta manparak.*

*... txorrotak eta bainuko osagarriak.*



**Eskatutako obra epe motzenean egingo dizugu gure langileekin.
Proiektu eta aurrekontuak konpromisorik gabe.**